

1237. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

**ARITZATXUBIDEA KALEA URBANIZATZEKO OBRA KONTRATUA
ESLEITZEA**

Xedea

Aritzatxubidea kalea urbanizatzeko obra kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko irailaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak, Aritzatxubidea kalea urbanizatzeko obren proiektua eta prozedura negoziatu bidezko administrazio baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: 2011ko azaroaren 7an iragarkia web orrialdean argitaratu zan.

Hirugarrena: 2011ko abenduaren 16an obra kontratuaren esleipenerako proposamen ekonomikoak aurkeztu dira.

Laugarrena: 2011ko abenduaren 20an udal arkitektoak eta obrearen zuzendari teknikoa dan arkitektoak txostena egin eben.

Argudioak

Bakarra: Aritzatxubidea kalearen urbanizazio obren esleipenerako kontratazio prozesura honek enpresak aurkeztu dira:

- Construcciones Intxausti, SA – Tecuni, SA
- Construcciones Morga, SL – Tecuni, SA

Udal arkitektoak eta obrearen zuzendari teknikoa dan arkitektoak horreek enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren egindako txostenean ikusi daitekeen moduan, baldintza administratiboetan zehaztutako kalifikazio sistema kontuan harturik, Construcciones Intxausti, SA – Tecuni, SA enpresek lortu dau punturik gehien.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, erabagi dot:

LEHENENGOA: Aritzatxubidea kalea urbanizatzeko obrak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, SA eta TECUNI, SA enpresen artean eratutako aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzea, 303.725,38 euroan (BEZ barik).

BIGARRENA: CONSTRUCCIONES INTXAUSTI, SA eta TECUNI, SA enpresen artean eratutako aldi baterako enpresa-elkartea eskritura publikoan formalizatu beharko da.

Bermeon, 2011ko abenduaren 29an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA